ataria

2017-02-17
634. zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus




# Aurtengo suziriaren garra

# SHUYANA
EDERGINTZA




**Shuyana Edergintza**
**Edertasun eta ongizatearen zure zentroa.**
**Aurpegia eta gorputza.**

**Shuyana denda**
**Kolore eta kosmetika aholkularitza. Azken joerak.**
**Makillaje ikastaroak.**
**Bisita ezazu gure web orrialdea.**

**Estetika:**
Eskolapioetako lorategiak 3, 1A
Telefonoa: 943 675 489

**Kosmetika:**
Korreo Kalea 1,
Telefonoa: 943 671 468

**www.shuyana.com**

# *Galtzaundi birusak jota*

*Egilearen oharra: inaute sasoiak eragindako moderazioaren suntsitze totala dela eta, testu hau tolosartasun eta tolosarkeriaz lepo dator.*

Gure inauteriak ez ezagutzeko desgrazia daukan estralurtar bati nola esplikatuko dio tolosar batek Tolosako inauteria zer den? (estralurtar: Tolosako inauteriak bizi izan EZ dituen lurtar oro). Tira, hasteko, inauteriak gerturatzen diren heinean bihotza apurtzerainoko dilema dauka tolosar peto-petoak, inauteriak herrian ala herritik kanpo igarotzea erabaki behar baitu, aukera badu behintzat. Bertan geratzea erabakiz gero, edo ezinbestekoa izanez gero, hurrengo erabaki existentziala hartu behar du: mozorrotu ala txilaba (ala hil).

Bazabiltza urtean zehar mozorroa prestatzen kuadrillakoekin, edo bakar-bakarrik eta sekretupean, edo egunerokotasunean lanpetuta ostegun gizena heldu zaizu eta oraindik ez duzu erabaki aurtengo ditxosozko mozorroa. Beti baitago txilaba. Bo, ostegun eguerdian hasi zara txistorrak jaten eta ardoa edaten, badatoz txarangak eta lehenengo saltoak. Hala, saltoka-maltoka, osteguna amaitu duzu txistorra edaten eta ardoa jaten, ostiral mehe goizeko zerua auskalo ze koloretakoa ikusten. Larunbatarekin iritsi dira ‘probintzianoak’ herrira, karnabalaz tutik ere ez dakiten horiek (barkatu, Gipuzkoa; karnabalaz ari gara, ados?). Igandeko Dianarakoa behintzat, erabakita daukazu: bi astetan garbitu ez duzun pijama jantzita aterako zara, erruloak ilean eta pepinozko maskarilla aurpegian, txapinak oinetan eta txikitako hartzatxoa besapean.



**YURRE UGARTE**
GIDOLARIA ETA IDAZLEA

Lanera eta toki guztietara beti berandu iristen zaren horietakoa zara, are goiztiar izateari gorroto diozu, baina, igandeko Dianara punttu-punttuan helduko zara. Gainera, pozez algaraka ekingo diozu «Jaiki jaiki ohe hortatik» oihukatzeari. Larunbateko gaupaseroak oherako bidean doazela, Dianakoak ikustean «Dianakoak friki batzuk dira» pentsatuko dute eta zuk zeuk, aldiz, pentsatuko duzu «Larunbat honetako gaupaseroak friki batzuk dira-nolatan ez datoz Dianara?». Venezian jada maskarak eta mozorro eleganteak jantzi dituzte; Donostiako desfilearen aurrean lokartu dira zientoka ikusle; Rio de Janeiroko egun handian bi miloi ipurdi mugitzen ari dira; zu zeu, inauteri igande bete-betean, oraindik pijaman eta hartzatxoarekin zabiltza. Hau ez da ez Lantzen, ez Zubietan ez eta Kanariar Uharteetan gertatzen. Kalean bapo gosaldu ostean, bazoaz etxera zure inauteriaren muina prestatzera.

Armairu batean badaukazu kartoizko kaxa erraldoi bat, non aurreko inauterietan jantzi dituzun guztiak gordetzen dituzun, hala nola aitonaren berokia, txinoetan erosi eta gero zuk tuneatutako hainbat mozorro, amonaren mantalak, gurasoen garaiko arropa afrusak, pierrot mozorroaren aldaera guztiak, arlekin desitxuratu bat, duela bi urte atera zenuten konpartsako margarita disfraza. Ordea, hara non, sukaldeko fregona begira ari zaizun... Zu hari begira hasi eta... ttak! Horixe da! Horixe izango da aurtengoa! Aitaren batean fregona bihurtuko zara, edo kaleetako pixaputzuak garbitzeari ekingo diozu Oria ibaiaren uraz egindako lixiba berezi batekin, edo burua fregonaren ontzian sartuta aterako zara, edo munduko fregatzailerik dotoreenaren gisan prestatuko zara, edo garbiketa enpresa bat eraikiko duzu Trianguloan, edo fregatzaileen sindikatu errukigabe eta iraultzaile bat sortuko duzu, batek daki. Nola edo hala, errealitatearen elementu domestiko batek inspiratuta egoera ezin fantastikoagoa sortuko duzu.

Errealitatea, paradoxikoki, oso presente baitago gure inauterietan. Teorian eguneroko errealitatetik urruntzeko mozorrotzen garen arren, aldi berean ez al gara ba beste (urruneko) errealitateak gertuago bizitzeko mozorrotzen? Hain hain gertu bizitzeko gu geu bilakatzeraino.

Kaleko eta gertuko baitira inauteriok. Espiritu horrek bultzatuta inbaditzen ditugu espaloiak eta asfaltoaren zentimetro guztiak. Galtzaundi birusak bizi gaitu eta harro gaude.

Batez ere, alai.

*A, eta inauterietan bost axola zaigu estralurtarren mundua.*



**ARGITARATZAILEA:** Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS–1323–2013 **KOORDINATZAILEA:** Naiara Roldan de Aranguiz
**KUDEATZAILEA:** Jexux Murua **TELEFONOA:** 943 655695 **WEBGUNEA:** www.ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus
**IRRATIA:** 943 69 80 38 · 687 4100 33 · 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 · publi@ataria.eus

ATARIAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:**

Tolosaldeko gizarte eragileak

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

**TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:**
**Udalak:** Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania–Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu–Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa–Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
**Itzea Urkizu**
**Ibai Luque**


inauteriak
Tolosa




# BIRIBILAK IZANGO DIRA AURTEN ERE

Zezen plazak hartu du aurtengo inauterien aurkezpena. Une eta sentimendu errepikaezinen lekukoa izan da, urtetan, eta festak berrituta ere, eraikin biribilak are biribilago bilakatzen ditu inaute-arratsaldeak. Olatz Peon alkatearekin batera, Kabi Alai elkartea, aisialdi taldeak, karrozak eta konpartsak eta Juanito Loperen lagunak protagonista izan dira, guztia prest dagoela iragartzeko.

# NIRE BIZITZAKO INAUTERI GUZTIAK MEMORIAN DITUT, LIBURU BAT BALITZ BEZALA



## MARI CRUZ IRIBARREN
INAUTERIZALE KUTTUNA 2017

**Inauteri gehien bizi ahal izan dituen tolosarretako bat da Mari Cruz Iribarren eta, ziur aski, mozorro gehien josi dituenetako bat ere bai; datorren ostegunean festa piztearen ardura izango du.**

**Itzea Urkizu Arsuaga**

Hitzordurik jarri beharrik izan gabe, Mari Cruz Iribarrenek (Tolosa, 1917) etxe atarian zain izaten omen zituen Plaza Zaharreko bizilagun eta langileak, inauterietan. Erretratu zaharrei begiratuz gero, ez da zail suertatzen jakin-min haren zergatia asmatzea: ia mendebetea duten eskuak mozorro ikusgarrien egile dira. Oraindik ere, balkoia apaintzeko panpinak mozorrotzen ditu urtero, denboraren joan-etorriak ez baitio josteko grina eten. Ezta bizitzekoa ere: betiereko gaztetasunaren pertsonifikazioa izan liteke aurtengo Inauterizale Kuttuna.

Izenaren musikatik izana baletorkio bezala, Iribarrenek irribarrea du altxor bizi, eta baita oroitzapenen gor-


ITZEA URKIZU



dailua ere: liburu bat osatuko luke inauterietako bizipenekin, irakurleak hunkituz. Horixe baitira, beretzat, Tolosako inauteriak: sentimendua, kolore eta forma guztietan.

Hitzordurik jarri beharrik izan gabe zen lehen, eta hitzorduetan hitzorduenean aurten, zain izango du Plaza Zaharra, 2017ko inauterietako txupinazoa noiz piztuko.

**Urte asko, eta guztiak Tolosan. Nola aldatu da?**

Asko aldatu da herria, ikaragarri. Hazi egin da, baina, horrez gain, bizimodua aldatu da; oso bestelakoa zen. Gure artean loturak estuagoak ziren, batasun handiagoa zegoen. Gu, adibidez, Plaza Zaharrean bizi ginen, eta han denok familia bat ginen, ez orain bezala.

**Denok ezagutzen zenuten elkar.**

Bai, denok ezagutzen ginen eta, kalean topo egiten genuenean, besarkatu egiten ginen eta musu ematen genion elkarri, maitasunez. Orain ez da halakorik ikusten.

**Nola gogoratzen dituzu haurtzaroko inauteriak? Ospatzen al zenituzten?**

Bai, orain baino hobeto! Egia da askatasun gutxiago izaten genuela eta, adibidez, etxean ez zigutela mozorrotuta ateratzen uzten. Baina lagun taldean bagenuen trikimailu bat [barreak].

**Zein trikimailu?**

Igandetan paga ematen ziguten, eta guk gorde egiten genuen dirua, asteroastero. Inauteriak iristen zirenean, La Casa Azul dendara joaten ginen, eta mozorroak alokatzen genituen. Lagun baten etxera joan eta han aldatzen ginen eta, behin mozorrotuta, Gorriti zinemara joaten ginen, han dantzaldia



izaten baitzen. Dantza izugarri egiten nuen nik, ez nuen pieza bakar bat ere uzten dantzatu gabe! Eta Larramendi kalean ere bazen El Olimpia izeneko lokal bat. Maskarak-eta janzten genituenez, gure gurasoek ez zuten ezer jakiten. Gure ama, gaixoa, ezer jakin gabe joan zen [barreak]. Gogoan dut nola esaten zidan, egin beharreko guztia egiten ez banuen, etxean geratuko nintzela. Gazteok lotuago bizi ginen orduan, baina, inauterietan uzten ziguten gauerdira bitarte kalean ibiltzen. Eta, gu, jarritako orduan, txintxo-txintxo, etxean izaten ginen.



**«Gazteok lotuago bizi ginen orduan, baina inauterietan uzten ziguten gauerdira bitarte kalean ibiltzen»**

**«Nik hiruzpalau urte izango nituen kaldereroak lehen aldiz irten zirenean»**

**«Rondilla kalean, Ibañezen gainean, bazen Irene Mugertza izeneko jostun oso on bat eta, 11 urterekin hasita, harekin ikasi nuen josten»**

**Geroztik, betidanik mozorrotu izan al zara inauterietan?**
Amarekin irteten nintzenean ez nintzen mozorrotzen, eta lagunekin ateratzen hasi ginenean mozorrotu nintzen estreinakoz. Orduz geroztik bai, orduz geroztik beti mozorrotu izan naiz inauterietan, nahiz eta orain ez naizen mozorrotzen.
**Eta, karrozak-eta irteten al ziren gaztea zinenean?**
Karroza ikaragarri politak egiten zituzten orduan.
**Baten bat bereziki gogoan duzu?**
Bai, *El Harén* zuen izena. Denak ziren gizonezkoak: batzuek xeke arabiarren papera zuten, eta beste batzuek neska dantzariena. Jende asko joaten zen karrozen atzetik, eta karroza asko izaten ziren orduan ere. Oso politak ziren! Kaldereroen karroza ere gogoan dut; nik hiruzpalau urte izango nituen kaldereroak lehen aldiz irten zirenean. Karroza oso-oso handia zen, eta txorizoa banatzen zieten herritarrei, karrozatik.
**Kaldereroak ere kutunak dituzu?**
Bai, oso, baina sekula ez dut kaldereromozorroa jantzi izan.
**Aurten omenaldi berezia jasoko duzu Kabi Alai elkartearen eskutik, besteak beste, baliabide gutxirekin zure seme-alabei mozorroak artez egiteagatik. Nola moldatzen zinen?**
Lehengo aldiz seme zaharrena mozorrotu nuen, bi urtetxo zituela eta, orduz geroztik, hazten joan diren heinean, eta nik nituen aukeren arabera mozorrotu izan ditut. Urte batean xentimorik ere ez genuen, ezer ez, baina nire artean pentsatzen nuen: «Mo-

**«Jantzi zoragarriak egin ditut, egia esan»**



zorrotu gabe ezin ditut utzi». Banituen gortina zuri batzuk, tanto gorriekin, eta parpaila bat zuten goitik beheraino. Bada, zer egin nuen nik? Gortinak kendu eta soinekoak egin.

**Sevillar soinekoak?**

Bai, hori da. Argazkiak ere baditugu! Inauteriak amaitu zirenean, soinekoa desegin eta gortinak zintzilikatu nituen berriz [barreak]. Beste behin, uholdeak izan ziren, sekulako euritea, eta Kale Nagusiko liburu denda batean paper biribilkiak busti zitzaizkien. Nire semea eskolatik etxera bidean zihoan, eta paper bustia ekarri zidan, esanez, kalean zegoela eta inork ez zuela hartzen. Zera galdetu nion, ea dendariari baimenik eskatu ote zion; ezetz erantzun zidan. Dendara itzuli, eta arduradunak nahi adina paper eman zidan. Paper-oihala zen, oso-oso polita, eta hainbat biribilki eman zizkidan dendariak. Horrekin, printzesa mozorroa egin nion alabari, zoragarria, eta semeari printze mozorroa egin nion. Horrela moldatzen nintzen, ahal bezala, baina ondo.

> **«Dantza izugarri egiten nuen nik, ez nuen pieza bakar bat ere uzten dantzatu gabe!»**

Gerora, seme-alabak hazi zirenean, bilobei egiten nizkien mozorroak; lehen baino gutxiago, hori bai.

**Eta, non ikasi zenuen josten?**

Eskolan eskulanak egitea oso gustuko nuen, garai hartan, josi ere egiten baikenuen eskolan: azpiko arropak eta halakoak. Rondilla kalean, Ibañezen gainean, bazen Irene Mugertza izeneko jostun oso on bat eta, 11 urterekin hasita, harekin ikasi nuen josten.

**Orduak eta orduak eskainiko zenizkion josteari, ezta?**

Ikaragarri, gauak eta gauak pasatu izan ditut josten! Maitagarri mozorroa egin nion behin alabari, eta jantzi hura benetan ederra zen. Lentejuela asko jarri behar nizkion, baina ur pixka batekin busti eta itsasten ziren lentejuela batzuk lortu nituen; hala ere, banan-banan jarri nituen. Gogoan dut senarrak nola esaten zidan: «Baina, Mari, gaua badoa, eta zuk oraindik hemen jarraitzen duzu!». Eta, nik, uzteko esaten nion [barreak]. Jantzi zoragarriak egin izan ditut, egia esan.

> **«Aldizkariren batean edo zineman zerbait ikusten nuen, eta ikusitako horretatik zerbait geratzen zitzaidan buruan»**

> **«Bi panpina handi ditut, oso altuak, eta horientzako mozorroak egiten hastea erabaki nuen; gozatu egiten dut»**

> **«Txarangek dantzarako jotzen dute, eta jendeak ez du hainbeste dantza egiten»**

**Nondik hartzen zenituen ideiak?**

Burutik! Aldizkariren batean edo zineman zerbait ikusten nuen, eta ikusitako horretatik zerbait geratzen zitzai-



dan buruan; dena ez, noski. Gero, buruan nuen horri zerbait gehitzen nion nire kabuz, eta horrela osatzen nituen mozorroak.

**Oraindik ere jarraitzen duzu?**

Seme-alabei eta bilobei alkandoraren bat edo galtzaren bat egin izan diet, baina ezer gutxi. «Orain, zer egingo dut?» pentsatzen nuen nire artean, eta aurkitu nuen konponbidea: bi panpina handi ditut, oso altuak, eta horientzako mozorroak egiten hastea erabaki nuen; gozatu egiten dut. Balkoian jartzen ditut urtero, eta inauteriz inauteri mozorro desberdin bat egiten diet, gainera.

**A bai?**

Bai. Bi panpinetako bat beltzarana da, eta buru handi samarra du [barreak]. Behin toreroz jantzi nuen, eta beste panpina manolaz. Tolosako elkarte batzuetako jantziak ere egin nizkien: Aiz-Orratzekoa, sukaldariarena,... Asko ditut, eta aurten ere jantziko ditut.

**Pentsatu al duzu mozorroa?**

Bai, mexikarrez mozorrotuko ditut. Proba egin beharra daukat, ikusteko, ea panpina bakoitzari txapela nola geratzen zaion; txapel mexikarra oso handia da eta, horrela, euria egiten badu estali egingo dira [barreak].

**Aipatu dituzun mozorro horiek gordeta al dituzu?**

Ez, seme-alabei egindako mozorroak ez, pena da, baina... Bilobek badituzte batzuk. Kontua da, mozorroen oihalak berrerabili egin izan ditudala, kuxinak eta halakoak egiteko; oso oihal onak erabiltzen nituen.

**Non erosten zenituen?**

Cea izeneko denda bat zegoen Kale Nagusian, gaur egun La Vasconia dagoen pare horretan, eta hari erosten nizkion oihalak.

**Inauterizale amorratua izan zara, eta oraindik ere bizi-bizirik duzu grina. Ba al duzu inauteri egun kuttunik?**

Astelehena, orduan ibiltzen baita ondoen! Inauteriak oso politak dira, baina jada ez dira lehengoak, ez dut poztasun hori ikusten. Izugarri gozatzen genuen, zezen plazatik behera elkarri helduta jaitsiz, saltoka, Corazonistetaraino. Hemen, berriz, Plaza Berrian, dantza egiten genuen.

**Salto egiteko ohitura hori galtzen ari da?**

Bai, zertxobait galdu da; txarangek dantzarako jotzen dute, eta jendeak ez du hainbeste dantza egiten. Hala ere, oraindik jendea ikusten da.

**Txarangak gustuko al dituzu?**

Bai, bizitza osoan gustatu izan zaizkit, eta inauterietako kantu guzti-guztiak dira politak niretzat.

**Aurten, inauteri bereziak ospatu-**





**ko dituzu, besteak beste, txupinazoa zuk botako duzulako.**
Ai ama! Ez dakit suziria zein aldetara joango den! [barreak].
**Pozez hartu al duzu albistea?**
Bai, noski, pozez; asko gustatu zait. Oraingoz ez nago urduri, baina hunkitu egiten naiz.
**Garrantzitsua da, ezta?**
Bai. Falta diren senitartekoak eta lagunak egongo balira... Baina horrelakoa da bizitza.
**Memorian dituzu haiekin pasatutako inauteriak.**
Bai, nire bizitzako inauteri guztiak memorian ditut, liburu bat balitz bezala. Askotan esaten didate, nolatan gogoratzen ote naizen guztiaz, baina halaxe da.
**Eta, hain urte berezia izanda, pentsatu al duzu festak nola ospatuko dituzun?**
Ez, oraindik ez dut pentsatu. Badakit dantzarik ezingo dudala egin, baina, jendeari begira ere oso ondo pasatzen dut! [barreak]. Ez dut inbidiarik sentitzen, baina oroitzapenak etortzen zaizkit eta hunkitu egiten naiz, jada ezin baititut inauteriak horrela ospatu. Jarriko banintz, dantza pixka bat egingo nuke oraindik ere, eh! [barreak].

**«Badakit aurten dantzarik ezingo dudala egin, baina, jendeari begira ere oso ondo pasatzen dut!»**

**Izan ere, leku pribilegiatuan bizi zara inauteriei begira egoteko ere.**
Bai, Plaza Berria alde batean eta, bestean, Rondilla kalea. Seme-alabek esaten didate prestatu eta kalera jaisteko, baina, zertarako? Kalean bultzada hemen eta bultzada han ibili behar izaten da inauterietan, eta balkoian inork ez nau bultzatzen! Ederki egoten naiz nire panpinekin eta nire serpentinekin! [barreak]. Argazkiak ere baditut balkoian, pentsa!
**Ederki atontzen duzu-eta.**
Bai, panpinekin batera oihal koloreduna jartzen dut, eta batzuetan maskarak ere jartzen ditut gainean. Semealabek banku luze bat egin zidaten, eta han gainean zutik jartzen ditut panpinak, kaletik ikus daitezen. Balkoira ondo lotzen dizkidate, eta nik jantzi egiten ditut.
**Zure seme-alabetan, denak al dira zu bezain inauterizaleak?**
Den-denak. Asko musikariak dira eta txarangetan parte hartzen dute eta, gainerakoak, inauterizaleak dira.
**Ondare hori utzi diezu, beraz.**
Polit askoa, gainera. Poz handia sentitzen dut jotzen ari direla ikusten dudanean, asko gustatzen zait.
**Inbidiagarria da zure umorea, jarraitu inauteriak horrela ospatzen.**
Noski, oraindik ere izugarri gustatzen zaizkit. Balkoira irten, eta oinak dantzan hasten zaizkit, benetan! Lau ahizparen artean inauterizale bakarra naiz, eta ez dakit nondik datorkidan festarako grina hori, baina oso umoretsua izan naiz beti.


Berezi
Ondo pasa inauteriak !!
Merkealdiaren azken hilabetea
NEURRI BEREZIAK
Gazte eta emakumeentzako moda
44-64 neurriak
www.berezitallasespeciales.com
Errementari kalea, 3 , Tolosa / Tel.: 943 674 965
berezitallasespeciales


Gipuzkoa 4.0 Fabrikazio Aurreratuko Sarea
Lurraldeko enpresa guztietan kasu arrakastatsuak sortu eta partekatzea.
Hori aitzindaria da.
ORAININDUSTRI4.0
Laugarren industria-iraultzarako prest
ORAINEKONOMIA
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
ORAIN GIPUZKOA
gipuzkoa.eus/industria4-0

# Kale inkesta


Iker Agirre, Jon Olaetxea eta Beñat Alonso. ATARIA

## Zer duzue nahiago, txarangak ala karrozetako musika?

**Beñat Alonso:**
Gu tradizionalak gara, betidanik izan gara txarangazaleak.
**Jon Olaetxea:**
Bai, bai, txarangazaleak, baina baldin eta zein kantu.
**Iker Agirre:**
Beno, baina karrozaren arabera...

## Ligatzeko teknikarik erabiltzen al duzue?

**Aitor Olazabal:**
Ez dago horrelakorik.
**Unai Etxeberria:**
Nik behin eta berriz saiatzea dut gustuko, berak etsi arte. Tarteka, funtzionatu izan dit, eta aurten ere berriz saiatuko naiz...


Aitor Olazabal eta Unai Etxeberria. ATARIA




Fermin Caminos eta Miren Izagirre. ATARIA

## Inoiz hartu al duzue sorpresarik beste bati mozorroa kentzean?

**Fermin Caminos:**
Ez zait horrelakorik pasa, baina entzun izan dut. Kontatzeko modukoa? Ez, ez; horiek ez dira kontatzeko gauzak!
**Miren Izagirre:**
Niri ere ez, oraingoz ez behintzat.

## BIDEOA

Tolosako kaleetan herritarrei egindako galderekin osatutako bideoa ikusgai izango da, otsailaren 21ean, 20:00etatik aurrera.
**www.ataria.eus**



Eskualdeko zenbait herritan, kaldereroz mozorrotu, eta gogotsu kolpatuko dituzte zartaginak inauteriak iragartzeko asmoz. NAIARA ROLDAN DE ARANGUIZ



# ZARTAGIN HOTSA HUNGARIATIK

Asteburuan, ekitaldi askoren artean, Kaldereroak ospatuko dituzte eskualdeko zenbait herritan; musikari eta dantzariekin batera, hartza ere kalera aterako da.

**Josu Artutxa Dorronsoro**

*Kriseilu, lapiko, pertza, burruntzali eta eltzeak*... Sukaldeko lanabesen dendan erosteko gauzen zerrenda izan zitekeen, baina ez. Kaldereroak heldu direla iragartzen duen kantuaren letra da. Ordu batzuk besterik ez dira geratzen, etxean aurkitutako trapu zahar eta bitxiekin osatutako mozorroak kaleratu eta, Sarriegiren doinuak entzuten ditugun bitartean, zartaginak mailuekin kolpatzeko.

Hungariar doinuak, ordea, ez dira Tolosan bakarrik entzungo, eskualdeko hainbat herritan ospatuko dutelako inauteriak iragartzen dituen eguna, hala nola, Anoetan, Ibarran, Iruran eta Zizurkilen. Tolosarren kasuan, Urdina Txiki elkarteak antolatuta, musika eskolako ikasleen bandak alaituko ditu alde zaharreko kaleak. Horiekin batera, dantzariak, biolin eta akordeoi orkestra eta hartza irtengo dira.

Hartza bera izaten da kalejirako protagonistetako bat, kaldereroen zaindari den animalia, haurren denbora-pasa bikaina. Haurrak izutzea izaten du helburu, baina horren haurrak ez direnak ere beldurtu izan ditu. Soka batekin lotuta eraman ohi dute, eta askotan ikusi izan dugu jendartetik igarotzen. Aurten ere ez da faltako, kantuak dioen bezala, bera ere aise konpontzen baita, trebe; eta orro eginez ibiliko da, guztiak ikaratu nahian.

## KALDEREROAK

### Otsailak 17, ostirala

**ANOETA**
**18:30.** Plazatik abiatuko dira kaldereroak.
**IBARRA**
**18:30.** Kaldereroen irteera San Bartolome plazatik, txarangaren laguntzaz.
**IRURA**
**18:30.** Kaldereroak kalejiran ibiliko dira.
**TOLOSA**
**19:30.** Udal Musika Eskolako ikasleen Kaldereroetako kontzertua Topic-en.
**ZIZURKIL**
**15:15.** Herrian barrena kaldereroen kalejira

### Otsailak 18, larunbata

**TOLOSA**
**10:30.** Udal Musika Eskolako ikasleen Kaldereroetako kontzertua Topic-en.
**12:00.** Aiz-Orratz txaranga irtengo da.
**12:30.** Haur jaialdia Leidor aretoan, Aiz-Orratz elkarteak antolatuta.
**19:00.** Kaldereroen konpartsaren irteera Plaza Zaharretik.
**23:30.** Incansables txaranga kalez kale.

### Otsailak 19, igandea

**TOLOSA**
**12:15.** Inauterietako kontzertua , Udal Txistulari Bandaren eta Tolosako Musika Bandaren eskutik, Berdura Plazan.

# «SARRITAN, SOKARIK GABE EGONGO BANINTZ BEZALA IBILTZEN NAIZ»

## HARTZA

Beste behin ere, Kaldereroetako konpartsarekin batera, alde zaharreko kaleetan korrika ibiliko da, «haurrak beldurtzeko asmoz». Gozatu egiten du, baina iaz, «sufritu» egin zuela dio.



Arreta handiz ibili beharko dute haurrek, hartzak ikaratzea nahi ez badute. NAIARA ROLDAN DE ARANGUIZ

**Josu Artutxa Dorronsoro** Tolosa

Gorputz iletsua, aurpegi beldurgarria, eta soka luze bat. Kaldereroetako hartzak, ez du besterik behar, konpartsaren atzetik joan eta ingurukoei negar malkoren bat edo beste eragiteko. Bi aldeetan daudenei oihu egin, eta, batera eta bestera, korrika ibiltzen da. Askotan, etxeko txikienei (eta besteei ere) susto ikaragarriak ematen dizkie. Irten aurretik, ATARIA-rekin egon da, azken urteetan bizitakoak kontatzeko.

**Zer da zuretzat Kalderero eguna?**
Egun polita da, baina baita neketsua ere. Oso ondo pasatzen dut, batez ere, txikienekin, helduagoak direnekin ez horrenbeste. Baina, guztiekin ere gustura aritzen naiz.

**Ze lotura du hartzak Hungariako kaldereroekin?**
Ez dakit zein den lotura zehatza. Esan beharra dago, hemengo ijitoak irudikatzen dituen animalia, edo behintzat, beraiek ondoan eramaten dutena, ahuntza izaten dela. Kasu honetan, ni naiz hungariarren maskota, baina ez dakit zergatik.

**35 urte jada konpartsarekin batera ateratzen zarela. Zer nolako zama du lan honek?**
Ez da astuna izaten, eta urtetik urtera, errazagoa egiten zait. Jantzi, kalera irten, korri egin, eta haurrak izutzea da nire eginbeharra, eta ez dut zailtasunik izaten, gustura aritzen naizelako.

**Zein izaten da zure eginkizuna?**
Lehen aldian, mezu bat bota zidaten: Korri egin eta haurrak ikaratzeko. Askotan, ez dira beldurtzen; hortaz, korri egiten jarraitu behar izaten dut. Joan den urtekoa, pixka bat berezia izan zen; lehen aldiz, gozokiak banatu genizkien txikienei. Gazteen gainera ere bota izan naiz askotan, asko, uneoro sokatik tiraka eta oihuka aritzen direlako. Azken finean, nire lana ondo egiten badut, umeek ondo pasatzen dute, eta hori da helburua.

**Haurrek dei egiten zaituzte zu erakartzeko. Ongi pasatzen duzu beraiek ikaratzen?**
Ez dakit benetan beldurtzen diren. Atzetik lasterka joaten naiz, eta beraiek ere korri egiten dute, buruhandiekin gertatzen den moduan. Txikienak ikaratzea lortzen dut, dudan aurpegi beldurgarriak inpresio handia eragiten baitu, eta negar egitera ere heldu dira horietako asko, baina orokorrean, gozatu egiten dut.

**Berez, ondoan izaten duzun zaintzaileak, soka batekin lotzen zaitu.**
Bai. Baina, sarritan, sokarik gabe egongo banintz bezala ibiltzen naiz. Nahiko bihurria izaten naiz, eta alde egitea ere lortu izan dut.

**Zer dela eta? Haserretu egiten zara?**
Ez, ez da hori. Txantxa moduan egiten dut. Zaintzaileari askatzeko eskatzen diot, eta joan egiten naiz, nahita.

**Urte guzti hauetan, denetariko umeak aurkituko zenituen. Urteren batean harritu al zaitu horietakoren baten erreakzioak?**
Badira geroz eta jokabide okerragoa izaten dutenak. Iaz, esaterako, haur batzuk jo egin ninduten, dei egin eta kasurik egiten ez nielako; asko ostikoka hasten ziren. Horrela, ez dut ondo pasatzen, sufritu egiten dut, eta hori egiten zutenak, okerrenak ziren, nahiz eta gutxi batzuk izan. Gainera, kontuan hartu behar da, bero izugarria izaten dudala, nekaturik eta izerditan blai amaitzen dudala. Halere, bestelako erreakzioak ere izan ditut; batzuetan, ez dut haurrak ikaratzea lortu, eta askotan, muxuren bat edo beste eman izan didate, baita gurasoek ere.

**Horren umeak ez direnak ere ez dira libratzen...**
Ez. Guztiekin jolastea gustatzen zait.

**Eta, baduzu urte hauetan bizitako anekdotarik kontatzeko?**
Bai. Behin, jolas moduan hasi, eta zerbait gehiago izatera heldu zenarena. Dendari batekin izan zen. Kalean zegoen, eskailera batera igota. Berarengana hurbiltzean, segituan ohartu eta denda barrura sartu zen, atzetik segika nindoala ikusi eta zerbait larria gerta ez zedin. Baina, sartu zenerako, bere atzean nintzen, eta jauzi egin ondoren, lurrera bota nuen. Ondoan zituen bere ilobek, guztia ikusi eta sekulako sustua hartuta, erabat beldurtu ziren. Oraindik ere, izututa jarraitzen dute.


BILLABONA K.E.
BILLABONA FUTBOL KIROL ELKARTEA
ARRATZAINGO FUTBOL ZELAIA
Larunbata 18 • 11:00
Infantil txiki maila
BILLABONA FKE - BEHOBIA C.D.
Larunbata 18 • 15:30
Ohorezko kadete maila
BILLABONA FKE - BETI GAZTE K.J.K.E
Igandea 18 • 17:30
Infantilen 1. maila
BILLABONA FKE - ORERETA KAFE F.C


Plaza Etxeberri
JATETXEA
Pedro Mari Otaño Plaza
943 69 19 36
Zizurkil
INAUTERIETAN GAUDE!!!
ospa ditzagun
umore onez
astelehenetik larunbatera
zatoz gure etxera bazkaltzera!!!
Konpromisoa Kalitate Turistikoarekin
Compromiso de Calidad Turística
www.plazaetxeberri.eus
en gaituzu


Sarrailgintza
KEY•LAN
Nafarroa etorb. 13 behea • TOLOSA
670 41 79 22 • Tel./Faxa: 943 65 0313


BAR
ITAIE
Ondo pasa inauteriak !
Nafarroa etorbidea, 13
Tel.: 943 65 28 47
TOLOSA


GOXOTEG
LUKAS
ROUTE
1933
2012
33
GOURMET
www.hogeitahamahiru.com
Poligono Bazurka, Nº 1
20260 Alegi Tel. 943 698 604
GOURMET OKINDEGIA GOXOTEGIA KAFETEGIA MUSEOA


MERKE ALDIA
Gama altuko
2 mo betaurreko
progresibo
177€
aurretiko prezioa: 197€
www.multiopticasgipuzkoa.com
ARRASATE • BERGARA • BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR
ERRENTERIA • IRUN • LASARTE • ORDIZIA
AZKEN EGUNAK
Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira
San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA
multiópticas
lehena zerbitzu optikoetan

# Tolosarrak atzerrian


Lide Etxeberria (Hungaria). ATARIA

## Nola igaroko dituzu aurtengo inauteriak?

**Lide Etxeberria:**
Hegaldiak begiratzen ibili naiz, baina oso garestiak dira guztiak; gainera, praktiketan lanean ari naiz, eta ezin dut astebeterako jai eskatu. Hala ere, oraindik, bi egunetarako Tolosara itzultzea pentsatzen dut.

## Bertan ospakizunen bat egiteko asmoa duzue?

**Ander Uranga:**
Kasualitatez, andaluziar kuadrilla batekin egin dut topo, eta bertako inauterietan famatuak diren *chirigota*-k oso gustuko dituzte. Hortaz, hemen ere parrandatxoren bat egiteko aukera izango dut.


Ander Uranga (Italia). ATARIA




Aritz Iglesias (Herrialde Katalanak). ATARIA

## Zein mezu botako zenieke tolosarrei inauterien atarian?

**Aritz Iglesias:**
Inauteriak ondo pasatzeko eta ea aste osoan euria egiten duen, hemen inbidiarik ez izateko.

## BIDEOA

Atzerrian dauden herritarrei Skype bidez egindako elkarrizketekin osatutako bideoa ikusgai izango da, otsailaren 20ean, 20:00etatik aurrera.
**www.ataria.eus**

# Juan Lope, artista eta inauterizalea

100 urte beteko dira tolosarra jaio zela, eta bere lagun eta senideek gogora ekarri nahi izan dute liburua eta dokumentala aurkeztuz; urtean zehar ekitaldi ezberdinak izango dira




Santa Maria kaleko Studioaren aurrean; hortik atera ziren bere eskulturak, bustoak, tailak, marrazkiak... **ATARIA**



Inauterizale amorratua zen Juanito Lope; argazkian bere numero batean. ATARIA



Joxemi Saizar

Artista eta inauterizale tolosar bat jaio zela 100 urte beteko dira aurten eta lagun eta senide talde batek gogora ekarri eta belaunaldi berriei ezagutzera emateko asmoa du. Umila, bohemioa, umoretsua, librea, denen laguna, langilea... zen Juanito Lope. Atzo aurkeztu zituzten Topic-en urte honetarako prestatzen ari diren ekitaldiak, liburua eta dokumentalarekin batera.

Juan Lope Jimenez 1917ko irailaren 12an jaio zen Tolosan. 1936an Gorriti zinemako makinista zen eta Walt Disneyren marrazkiak ikusita, haiek imitatzen hasi zen. Soldaduskan egur taila gustuko zuen azpeitiar batek zerbait irakatsi eta horretan hasi zen Santa Maria kaleko bere txokoan. Lopetegi eskulturagile donostiarrak buztina lantzen erakutsi zion eta Mariano Benlliure eskulturagile ospetsuak Madrilera eraman zuen berarekin ikastera, baina hiru hilabete besterik ez zuen iraun han. Tolosara itzuli eta Aste Santuko prozesioetarako pasoak egiten hasi zen. Izena hartzen joan zen eta enkargu ugari jaso zituen inguruetan eta Euskal Herri osoan.

Tolosan bertan bere busto, eskultura eta marrazki ugari ikus daitezke oraindik: Pablo Gorosabel, Adrian Laskibar, Felipe Dugiols, baserritarra, euskal dantza, Wenceslao Maiora, Francisco de Tolosa, Ramos Azkarate, Alexander Fleming, Izaskungo ama birjina... eta Tolosaldean ere gordetzen dira bere lanak, gutxienez Alegian (Txintxarri elkarteko armarria), Altzon (Erraldoia), Amezketan (Fernando Amezketarra) eta Orexan (Jesukristo). Gainera bere marrazkiak, bustoak eta armarriak hainbat elkarte eta tabernatan ere ikus daitezke. Eta Ordizian, Beasainen, Zumarragan, Zarautzen eta Zalduondon, besteak beste, bere lan batzuk gelditzen dira kalean.

## Galtzen ari den izpiritua

Inauterizalea izanik, parte hartu zuen hainbat konpartsa eta karrozatan eta eskatzen zioten elkarte eta kuadrillei beti esku bat botatzeko prest agertzen zen. Baliabide gutxirekin eta umore askorekin, gaur egun galtzen ari den Tolosako inauteri estilo baten ordezkari ezagunenetako bat izan zen hamarkada askotan zehar. 1981eko irailaren 1ean hil zen, 64 urte betetzeko egun gutxi falta zirela.

Mendeurrena aprobetxatuz, lagun eta senide talde batek ezagutzera eman nahi du pertsonaia hau, belaunaldi berrientzat ezezaguna. Horretarako atzo aurkeztu zituzten prestatu dituzten ekitaldiak. Hasteko, Loperi buruzko liburua eta bera eta garai bateko inauteriei buruzko dokumentala



Jan da lo markesen ezkontza, 1947an, Juanito Lope eta Julian Elola. ATARIA





Bakarka edo talde txikian ateratzea zuen gustuko, baliabide gutxi eta umorea soberan. ATARIA

aurkeztu ziren atzo. Webgunea ere martxan dago *www.esculturaurbana.com/Webs/weblope* helbidean. Datorren astean izango diren inauterietan izango dira hurrengo ekitaldiak. Danborradan urte askotan parte hartu zuen Juanito Lopek eta omenaldi bat egingo zaio danborradaren hasieran. Gainera bere omenezko konpartsak aterako dituzte hainbat inauterizalek.

Apirilean eskolarteko marrazki lehiaketa izango da, DBH mailan, taldeka, Lopek egiten zituen estilokoak ezagutzera emateko. Maiatzean argazki eta bere artelanen erakusketa izango da Aranburu Jauregian. Data zehaztu gabe beste ekitaldi batzuk ere aurreikusita daude: pasadizoaren eta bere kaleko obren txukunketa, Erraldoi eta Buruhandi Konpartsaren omenaldia, bere lanen ibilbide turistikoa, bere obren erakustokia... Eta bukatzeko, urteko ekitaldi guztiak jasoko dituen bideo bat egingo da.

## Liburua eta dokumentala, kalean

Liburua ere aurkeztu zen atzo. 80 orri ditu, euskaraz eta gazteleraz idatzita dago eta lagun eta familiartekoen testigantzak jaso ditu hainbat kolaboraziorekin batera. Gainera 200 argazki baino gehiago, Loperen 24 marrazki eta hainbat dokumentu –egunkari aipamenak, eskutitzak, egitarauak, partiturak– biltzen ditu. Juanito Loperen biografiaz gain, bere obraren xehetasunak ematen ditu eta inauterietan ateratako numeroen informazio zabala biltzen du. Artistak lan egin zuen lokalak, jaso zituen omenaldiak, zezen kontuak eta beste ere aipatzen dira lan monografiko honetan. 20 eurotan dago salgai. Gaurtik aurrera toki hauetan eros daiteke: Atodo, Asteasuarra, Ikatza, Elurra, Triangulo eta Itaie tabernetan eta Aranburu eta Babel liburu dendetan.

Atzo aurkeztu zen dokumentalean, Juanito Lope eta hil berri den Miguel Mari Iraola omenduz, Tolosako inauterian nabarmendu izan diren pertsonai batzuen testigantza jasotzen da, batzuk hilak (Javier Bello Portu, Jose Manuel Gorostiaga, Juan Garmendia Larrañaga, Jose Tarragona, besteak beste) eta beste batzuk bizirik daudenak. Ordu erdiko ikus-entzunezkoan inauteriaren historia, musika, txantxoa... aztertzen dira.

Hasiera bikaina eman zaio Juanito Loperen urteari. Eta hemendik aurrera ere hizpide izango da artista tolosar eta inauterizale handia.

# Tolosako inauteriak

## OSTEGUN GIZENA
## OTSAILAK 23

**11:30.** Udal Txistulari Bandak Inauterietako *Zortzikoa* joz egingo du ohiko ibilbidea.
**11:45.** Ostegun Gizen konpartsaren agerpena Plaza Zaharrean. Kabi-Alai elkarteak Maria Cruz Iribarren 2017ko *Inauterizale Kuttuna* izendatuko du.
**Ondoren.** Pregoia.
**12:00.** Plaza Zaharrean, suziria jaien hasiera iragartzeko.
**12:00.** Pintxana eta Kabi-Alai txarangen irteera, Aroztegieta kaletik.
**16:30.** Zezen plazan zezen-festa, Pintxana eta Kabi Alai txarangek alaitua.
**Ondoren.** Kalejira.
**19:00.** Txosnagunean kontzertua.
**19:30.** Emakumeon plazatik Zezen Suzkoa irtengo da. Antolatzailea: Ero Etxe Elkartea.
**20:00.** Aurrera Kirol Elkartearen danborrada.
**22:30.** Txosnagunean Egurra ta Kitto, Tremenda Jauria eta Ziribulio taldeen kontzertuak.





## OSTIRAL MEHEA
## OTSAILAK 24

**11:30.** Ozenki Txistulari taldearen kalejira.
**16:30.** Zezen plazan xexen-festa, Kabi-Alai txarangak alaituta.
**Ondoren.** Kalejira.
**20:30.** Ostiral Mehe eguneko danborrada.
**22:00.** Txosnagunean kontzertuak: Atila y Los Unos, Starlux eta TPR.
**22:30.** Arpegi Taldeak antolatuta, Ostiral Mehe eguneko jaialdia Leidor Aretoan.
**23:30.** Jainekin txarangaren irteera.



## ZALDUNITA BEZPERA
## OTSAILAK 25

**11:00.** Tolosako Erraldoi eta buruhandiak, Tolosako Dultzaineroez lagundurik. Irteera Plaza zaharretik.
**11:00.** Udal Musika eskolako ikasle bandaren kalejiraren irteera, musika eskolatik.
**11:30.** Udaberri Dantza Taldeak antolatuta, Dantzari txikien kalejira abiatuko da Triangulotik. Herriko hainbat tokitan saioak eskainiko dituzte.
**12:15.** Iraunkorrak eta Oriako Txaranga txarangak kalez kale.
**17:00.** Aiz Orratz elkarteak antolatuta, haur danborrada aterako da Geltoki kaletik.
**19:00.** Tolosako Danborradaren irteera Triangulotik. Juanito Loperen omenezko ekitaldia.
**22:00.** Txosnagunean kontzertuak: Zartako-K, Nekez eta Batxuri.

## ZALDUNITA
## OTSAILAK 26

**08:00.** Diana, Tolosako Musika Bandarekin.
**08:45.** Herriko txistulari bandak ohiko ibilbidea eginez, Inauterietako *Zortzikoa* joko du.
**10:00.** Txarangen irteera.
**11:00.** Plaza Berrian sokamuturra Aiz Orratz txarangak alaituta.
**11:00.** Karroza eta konpartsen irteera.
**15:45.** Udal Txistulari Bandak *Idiarena* pieza joz egingo du ohiko ibilbidea.
**16:00.** Kalejira Txapel Haundi, Sukalde eta Alcoyano txarangekin, Plaza Zaharretik zezen plazaraino.
**16:30.** Zezenak zezen plazan, txarangak eta txistulariak ariko dira ikuskizuna alaitzen.



**Ondoren.** Kalejira.
**19:00.** Txosnagunean kontzertua: Laket.
**19:00.** Dantzaldia Berdura Plazan Txapel Haundi, Sukalde eta Alcoyano txarangekin.
**22:00.** Txosnagunean kontzertuak Gureran, Ahuntzape eta Dj Bull-ekin.
**23:30.** Kalean eta Oriako Txaranga txarangak kalez kale.

## ASTELENITA OTSAILAK 27

**09:00.** Txarangen irteera.
**11:00.** Plaza Berrian sokamuturra Eroetxe txarangak alaituta.
**11:00.** Karroza eta konpartsen irteera.



**12:00.** Lopez Mendizabal plazan txarangen bilkura, Gure Kaiola eta Berazubi txarangen eskutik. Euria bada, Berdura plazan.
**Ondoren.** Kalejira Gaztelako Ateraino.
**15:30.** Rockalean elektrotxarangaren emanaldia. Irteera Nafarroa etorbidetik.
**16:00.** Kalejira, Tolosano, Poca Tripa eta Arco Iris txarangekin, Plaza Zaharretik zezen plazara.
**16:30.** Zezenak zezen plazan; txarangak ariko dira ikuskizuna alaitzen.
**Ondoren.** Kalejira.
**19:00.** Dantzaldia Berdura Plazan, Tolosano, Poca Tripa eta Arco Iris txarangekin.
**19:00.** Txosnagunean kontzertua: Guri5.
**22:00.** Txosnagunean kontzertuak: Sukarra 37, Bad Sound System eta Dj Pistatxo.
**23:30.** Bonberenea eta Incansables txarangak kalez kale.

## ASTEARTITA OTSAILAK 28

**06:00.** Udal txistulari Bandak Alborada joko du Udaletxeko arkupetan, Berdura plazan eta Felipe Gorriti plazan.
**08:00.** Elkarteetako txarangek alaituta, Pattar zezena zezen plazan.
**Ondoren.** Kalejira.
**11:00.** Plaza Berrian sokamuturra Aiz Orratz txarangak alaituta.
**11:00.** Karroza eta konpartsen irteera.
**12:00.** Lopez Mendizabal plazan txarangen bilkura: San Esteban, Sukalde, Arco Iris eta Txapel Haundi txarangen eskutik. Euria bada, Berdura plazan.
**Ondoren.** Kalejira Gaztelako Ateraino.
**15:45.** Udal Txistulari bandak, ohiturazko ibilbidea eginez, *Idiarena* joko du.



**16:00.** Kalejira Kabila, Urdiña Txiki eta San Esteban txarangekin, Plaza Zaharretik zezen plazara.
**16:30.** Zezenak zezen plazan, txarangak eta txistulariak ariko dira ikuskizuna alaitzen.
**Ondoren.** Kalejira.
**19:00.** Dantzaldia Berdura plazan Kabila, Urdiña Txiki eta San Esteban txarangekin.
**23:00.** Sardinaren agurra. Kalejira Gure Txokoa elkartetik abiatuta.
**23:30.** Incansables Zaharrak txarangaren irteera.

## PIÑATA IGANDEA MARTXOAK 5

**16:30.** Poca Tripa txaranga Iurreamendi Egoitzara joango da.
**16:30.** Zezen plazan xexen festa Kalean txarangak alaituta.
**Ondoren.** Kalejira.



# Inauteriak

## ELKARTASUNEZKO SAGARDOTEGIA



# 200

### PERTSONARENTZAKO JANTOKIA, LAPURDI PLAZAN

**OSTEGUN GIZENETIK ASTEARTITARA**

**Afariak.** 21:00etatik aurrera egun guztietan eskainiko dute sagardotegiko menua.

**Bazkaria.** Zaldunita egunean 14:00etatik aurrera eskainiko ditu.

**Kupelak.** Kupeletatik sagardoa edateko aukera izango da.

## TXOSNAGUNEA



Topa eginez emango diete hasiera. E. MAIZ

### OSTEGUN GIZENA
### OTSAILAK 23

**12:00.** Topa.

**18:30.** Triangulotik, *Gazteak Kalean* lelopean manifestazioa.

**19:30.** *Eraso matxista eta arrazisten aurka kaleak hartu* lelopean manifestazioa, Triangulotik,

**23:30.** Egurra ta kitto, Tremenda jauria eta Ziribulio taldeen kontzertua.

### OSTIRAL MEHEA
### OTSAILAK 24

**22:00.** Atila y los unos, Starlux, TPR eta Oztopo taldeak.

### ZALDUNITA BEZPERA
### OTSAILAK 25

**22:00.** Odolaren mintzoa, Nekez, Zartako-k eta Batxuri taldeen kontzertuak.

### ZALDUNITA
### OTSAILAK 26

**19:00.** Laket

**22:00.** LaketGureran, Ahuntzape eta Dj Bull.

### ASTELENITA
### OTSAILAK 27

**19:00.** Guris

**22:00.** Sukarra 37, Bad Sound System eta DJ Pistatxo.



tolosaldeko ataria

ataria irratia · ataria internet · ataria prentsa

Zure iragarkia argitaratzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.eus

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua


Talaiek igandea izango dute festarako eguna. JON MIRANDA


Amezketarrek bi egunetan alaituko dituzte herriko bazterrak. JON MIRANDA

# ABALTZISKETA

## IGANDEA
## OTSAILAK 26

### TXANTXOAK

**08:00.** Baserrietatik barrena hasiko dute ibilbidea.
**11:00–11:30.** Abaltzisketako herrigunera iritsiko dira. Udaletxean eta etxeetan dantzatu ostean, baserrietako bideari ekingo diote berriz ere txantxoek.

# AMEZKETA

## LARUNBATA
## OTSAILAK 25

### TALAIAK

**08:00.** Udaletxe azpian elkartu, eta Bedaio eta Amezketako baserrietan ibiliko dira.

## IGANDEA
## OTSAILAK 26

**08:00.** Udaletxe azpian elkartu, eta Ugarte, Amezketako kaleak eta Zubillaga auzotik pasako dira, giroa jarriz.




Zure argazkia ataria.eus-era igo
ARGAZKI LEHIAKETA
2017 inauteriak

ataria
argazki lehiaketa



nekatur
'Opari Bonu Orlegia'
Bi pertsonarentzako bi gaueko egonaldia:
logela eta gosariekin, edo apartamentuan
Nekatur Nekazalturismo Elkartearen eskutik
www.nekatur.net • 943 32 70 90
Epaimahaiaren saria

LUR-LAN
Lurlan Bistrot-ek emandako bertako produktuz osatutako bi sorten zozketa parte hartzen duten atarikideen artean
Plaza berria 2 , Tolosa • 94324339
atarikideen saria

BIDEGOXO
Lau pertsonarentzako otordu bat Bidegoxo Jatetxean
Usabal auzoa 25, Tolosa • 943577573
• www.bidegoxo.com
ataria.eus-eko erabiltzaileen saria

# Inauteriak eskualdean


Eskolako haurrek inauterietan jaialdia egin zuten, iaz, Berastegin. **ATARIA**


Txantxo eta dantzariak puska biltzen aritu ziren, iaz, Iizartzarrak. **JON MIRANDA**



**TIO TERONEN SEMEAK IKUSTEKO AUKERA, LIZARTZAN**
Asteburu bat inauterietan pasata, bigarrenari ekiteko prest daude lizartzarrak. Asteburu bete-betea dute aurretik, eta ezin hobeto bukatzeko igandean Tio Teronen Semeak dantza taldea izango da. Jatorri desberdineko dantzariak bildu dira taldea sortzeko, eta bi gauza dituzte komunean: dantzatzeko pasioa eta umore paregabea. Doan izango da, pilotalekuan, 16:30ean. ATARIA



# BERASTEGI

## OSTIRALA OTSAILAK 17

**16:00.** Txokolate jatea eskola atarian, Guraso elkartearen eskutik.
**17:30**. Haurren dantza, trikitia eta txistu emanaldia.
**19:00.** Pintxo potea.

## LARUNBATA OTSAILAK 18

**11:00.** Hamaiketakoa plazan, Urepele elkartearen eskutik.
**Ondoren**. Betiko jolasak txikienentzat, eta altxorraren bila jokoa gazte eta helduentzat. Bazkaldu aurretik mozorroen desfilea, koreografia eta ahal dena, plazan.
**14:00.** Herri bazkaria. Bazkaria norberak eraman beharko du. Antolakuntzak ogia, edana, kafea eta kopak jarriko ditu.
**18:00.** Erromeri ibiltaria tabernaz taberna. Eta iluntzean, luntxa eta Dj Txoko Urepele elkartean.

# LIZARTZA

## OSTIRALA OTSAILAK 17

**14:15.** Eskolak antolatuta mozorro festa.
**Ondoren.** Kalejira.

## LARUNBATA OTSAILAK 18

**07:00.** Plazan elkartu eta kalejira Uetako zubitik dantzari, txantxo eta txistulariekin. Diana abestuz hasiko dute inauteria.
**07:30.** Puske-biltzea, dantzari eta txantxoak elkarrekin Ospeletik.
**10:00.** Etxe-zahar baserrian geldialdia gosaltzeko.
**12:00.** Mozorro, gurdi eta txarangen irteera Errota ataritik.
**13:30.** Inauterietako partaide guztiek kalejira, Arrateko zubitik irtenda. Ondoren, denek elkarrekin bazkalduko dute herriko frontoian.
**18:00.** Gurdi eta mozorroak Joxe Mariko aparkalekuan bilduko dira kalejiran plazara jaisteko, bertan sagardotegi ezberdinetako sagardoak eta Lizartzako talogileak egindako taloak jateko aukera izango da.

## IGANDEA OTSAILAK 19

**11:00.** Meza nagusia.
Ondoren, hamaiketakoa plazan.
**12:00.** Dantzariak kalean ibiliko dira puska biltzen gurdi, mozorro eta gainerakoekin batera. Ondoren, Lizartzako Ihaute Dantzak plazan.
**14:00.** Inauteri bazkaria herriko pilotalekuan, txarangaz alaiturik.
**Ondoren.** Tio Teronen Semeak dantza taldearen emanaldia.
**20:30.** Plazan ijitoa errez inauterien amaiera.

## Garenaz ahazten ez baldin bagera



IÑIGO GOROSTARZU 'ETXORDE'
HARITUZ-EKO KIDEA

*Ostegun Gizenetik*
*Ostiral Mehera,*
*txilaba bat jantzita*
*irten kalera,*
*larunbata «reposo»*
*eginda hobe da,*
*Zaldunitan ibili*
*nahi bada topera,*
*ta handik aurrera,*
*mozorro barnera,*
*antzeztuz papera,*
*gutxi gora bera,*
*garenaz ahazten ez*
*baldin bagera.*

**Doinua**
Betroiarena



# *Talai beti alai*

IMANOL ARTOLA ARRETXE 'FELIX'
FILOSOFOA ETA ANTZEZLEA



Goizeko zazpi eta erdiak. Iratzargailua. Bezperako alkohol zaporea ezpainetan eta hiru orduko loarekin, dutxara begiak zabaldu ere egin gabe.

Dutxaren ostean, galtzak, alkandora, gerrikoa, lepokoa, galtzerdiak, abarkak eta txapela jantzi eta amak prestatutako zukua eta kafea korrika eta presaka edan ostean, plazara.

Hantxe daude batzuk jada. Berriren bat ere gerturatu da. Ah ez, bat baino gehiago. Lotsatuta eta isilik daude, oraindik. Soltatuko dira. Nire anaia azaldu da jarraian amatxok prestatutako termo eta guzti. Kafea. Anisa ere ez dadila falta. Eta pastak. Ahoko alkohol zaporea anis zapore bilakatu da eta barrua berotu ostean bagoaz furgonetan denok Zugastibarrenera. Roxik urtero bezala egin digu arrera beroa eta urtero bezala oroitu ditugu aspaldiko Talaitako kontuak, Iker aitzaki hartuta.

**Kafea. Anisa ere ez dadila falta. Eta pastak. Ahoko alkohol zaporea anis zapore bilakatu da eta barrua berotu ostean bagoaz furgonetan denok Zugastibarrenera**

Begiak gorrituta batzuk Bedaio aldera eta besteak San Martinetik Iparren amaitu dugu eguna, tripa ondo beteta eta Talai dantzaren bertsio berritua asmatuz. Hori izango da biharko egunak emango duenaren kronika laburtua.

Igandea ere antzeko hasiko dugu plazan elkartu eta anisez barrua berotu ostean, Sakelara eta Petxunera. Bi taldeak Zubillagan elkartu eta Auzoetxera noiz helduko desiratzen. Handik aurrerakoak... sarri hobe izaten da ez kontatu. Aurten herrian geratuko gara, ez gara Larraitzera joango, baina hargatik ez gara garaiz ibiliko. Urtero luzatzen zaigu kontua.

Eta astelehenean Zalbide sagardotegira. Ikustekoa izango da bakoitza nola jantzita agertuko den!

Otsailaren 25ean ere egin beharko dugu esnatzeko ahalegina.

Eta nahi duenak badaki, otsailaren 25 eta 26ean, 08:00etan plazan.

ILEORDEAK PREST **ATARIAN**




# Eronera



**IÑIGO IRURZUN**
IKASLEA

Ekaitzaren ostean geratzen omen da euri usain moduko bat; hotza batzuetan ikusi ere egin daiteke; Inauteriak datozela eta, zentzumen guztiek dantzari ekiten diote. Herria eta herritarrak kolorez janzten dira. Tolosarra ez den horri ere entzun egin behar izaten zaio «aizu, oraindik asko geratzen da eta!». Hauek ez dute tutik ere ulertzen...

Inauteriak zer ziren galdetu zidaten duela gutxi. Galdera entzun bezain pronto burura etorri zitzaizkidan milaka iruditara egin nuen salto. Zezenetan konfeti borrokak bizitzea inauteria da. Urtean behin, alboradan txistulariak entzun eta horiekin kantatu eta dantzatzea inauteria da. Aste batez eguraldian aditu izatea inauteria da. Diana 96 aldiz jarraian jotzea inauteria da. Gibelari zer moduz dagoen galdetzea ere inauteria da. Zer demontre, urte guztian zehar tokirik ez duten milaka istorio bizitzea da inauteria!

Batzuei agian txarangen atzetik ibiltzea gustatzen zaie. Niri aldiz, zezenen osteko dantzaldiaz gozatzea. Beste horri lagun kuadrillak hala nola egindako konpartsan tzundatzunda entzutea. Bada hausterre egunean poteoan gozatzen duenik ere. Mila modu festaz gozatzeko. Horrek egiten du berezia inauteria, eta noski, berezi denak merezi. Konfeti eskukada handi bat bihurtzen da Tolosa, kolore desberdinetako pertsonek herria koloreztatzea helburu izanda.

Aurten pirataz mozorrotuko naiz, nire altxor preziatuena nik bakarrik ez, herritar guztiek gozatuko dutela jakinda; inauterietako musikaz ari naiz bai. Txarangek markatutako erritmoan bizitzen ditugu eromenezko egun hauek. Askotan tamalez, gehiegizko zaratak itzali egiten du kaleetan sortu ohi den harmonia. Zaratak eta polemikek ezin dute inauterien errespetu doinua isilarazi. Txaranga urruti ikusita ere, iriyarena egiteari utzi, jaitsi musika eta gozatu festaz!

GORA INAUTERIAK!

**Zezenetan konfeti borrokak bizitzea inauteria da. Urtean behin, alboradan txistulariak entzun eta horiekin kantatu eta dantzatzea inauteria da. Aste batez eguraldian aditu izatea inauteria da. Diana 96 aldiz jarraian jotzea inauteria da. Gibelari zer moduz dagoen galdetzea ere inauteria da**

TOLOSALDEA GARATZEN

# inauteriak inauteri garraio publikoa erabili



## HIRIBUSA 2017

**EGUNEKO ZERBITZUA**

| | | |
|---|---|---|
| Otsailak 23, ostegun gizena | 12:00ak arte<br><br>12:00etatik aurrera | Ohiko ibilbidea<br><br>Santa Klara-Zumardi Txiki, Foruen etorbidea, Geltoki....... |
| Otsailak 24, ostiral mehe | 7:20 – 9:00<br><br>9:30 - 22:00 | Santa Klara-Zumardi Txiki, Foruen etorbidea, Geltoki.....<br><br>Ohiko ibilbidea |
| Otsailak 25, larunbata | 12:00ak arte<br><br>12:00etatik aurrera | Ohiko ibilbidea<br><br>Santa Klara-Zumardi Txiki, Foruen etorbidea, Geltoki...... |
| Otsailak 26, Zaldunita | 10:30 – 14:30<br>eta<br>16:00 – 22:00 | Santa Klara-Zubi Berria, Usabal, industrialdea, Amarotz (beheran), Kondeaneko Aldapa, Santa Klara-Zubiberria |
| Otsailak 27, Astelehenita<br>eta<br>Otsailak 28, Asteartita | 7:30 – 10:00 | Santa Klara-Zumardi Txiki, Foru etorbidea, Geltoki, Iurre, Iurreamendi, Usabal, Industrialdea , Amarotz, San Blas, Iparragirre, Zabalarreta, Kondeaneko Aldapa, Klinika, Santa Klara-Zumardi Txiki. |
| | 10:30 – 14:30<br>eta<br>16:00 – 22:00 | Santa Klara-Zubiberria, Usabal, industrialdea, Amarotz (beheran), Kondeaneko Aldapa, Santa Klara- Zubi Berria . |
| Martxoak 1, hauster eguna | 7:20 – 9:00<br><br>9:30etatik aurrera | Santa Klara-Zumardi Txiki, Foruen etorbidea, Geltoki.<br><br>Ohiko ibilbidea |



## Tolosa-Amezketa-Tolosa
## Tolosa-Berastegi-Tolosa

| GAUEKO ZERBITZUAK | | |
|---|---|---|
| Otsailak 23-24, Ostegun gizen<br>Otsailak 25-26, Zaldunita bezpera (larunbata)<br>Otsailak 26-27, Zaldunita (Igandea)<br>Otsailak 27-28, Astelehenita (Astelehena) | 23:30<br>01:00<br>02:30 | **TOLOSA** (Santa Klara - Zumardi Txiki) – **Amarotz** - Ikaztegieta – Alegi - Abaltzisketa - **AMEZKETA** - **Tolosa.** |
| | 0:15<br>01:45<br>03:15 | **TOLOSA** (Santa Klara – Zumardi Txiki) – **Amarotz** – Ibarra - Berrobi - Eldua - Elduain - **BERASTEGI- Tolosa** |

**TOLOSA – ASTEASU – TOLOSA**
**2017**
**GAUEKO ORDUTEGIA**

| Tolosaldea | Otsailak 23-24 – *Ostegun gizena*<br>Otsailak 25-26 – *Zaldunita bezpera*<br>Otsailak 26-27 – *Zaldunita*<br>Otsailak 27-28 – *Astelehenita* |
|---|---|
| **Tolosa** (Santa Klara-Zumardi Txiki), Anoeta, Irura, Villabona, Zizurkil, Asteasu | **00:00**<br>**01:00**<br>**02:00**<br>**03:00**<br>**04:00** |
| **Asteasu, Zizurkil, Villabona, Irura, Tolosa** (Santa Klara-Zumardi txiki) | **00:30**<br>**01:30**<br>**02:30**<br>**03:30**<br>**04:30** |

# TOLOSA – DONOSTIA – TOLOSA
# 2017

| tsst | EGUNEZ / DIURNOS | | GAUEZ / NOCTURNOS | |
|---|---|---|---|---|
| | **Donostia – Tolosa** | **Tolosa – Donostia** | **Donostia Tolosa** | **Tolosa Donostia** |
| **Otsailak 25 Febrero**<br>**Larunbata / Sábado**<br>***Zaldunita bezpera*** | **Ohiko zerbitzua**<br>Servicio habitual | **Ohiko zerbitzua**<br>Servicio habitual | 22:45<br>00:00 – 07:00<br>(60 min) | 22:45<br>00:00 – 07:00<br>(60 min) |
| **Otsailak 26 Febrero**<br>**Igandea / Domingo**<br>***Zaldunita*** | 07:00 – 16:00<br>(60’)<br>10:30, 11:30,<br>12:30<br>16:45 – 20:45<br>(30’)<br>21:45 | 08:00 – 16:00<br>(60’)<br>11:30,12:30,<br>13:30<br>16:00 - 20:30<br>(30’)<br>21:15, 21:45<br>22:45 (Lasarte) | | |
| **Otsailak 27 Febrero**<br>**Astelehena / Lunes**<br>***Astelehenita*** | **Egunez**<br>**Ohiko zerbitzua**<br>Servicio habitual<br>**Azken irteerak**<br>Ultimas salidas<br>… 20:45, 21:15,<br>21:30, 21:45,<br>22:15, 22:45 | **Ohiko zerbitzua**<br>Servicio habitual | **Donostia – Lasarte – - Andoain - - Villabona – - Irura – Tolosa**<br>21:15, 21:30,<br>21:45 22:15<br>22:45 | **ZUZENA**<br>**Tolosa – Rekalde – - Añorga – Donostia**<br>01:00 – 06:00<br>(60 min)<br>**Tolosa – Irura – - Villabona – - Andoain – - Lasarte – Donostia**<br>00:00 – 06:00<br>(60 min) |
| **Otsailak 28 Febrero**<br>**Asteartea / Martes**<br>**Asteartita** | **Ohiko zerbitzua**<br>Servicio habitual | **Ohiko zerbitzua**<br>Servicio habitual | | |

Osteguna 23, 12:00etatik
Ostirala 24, 06:00etara,
Larunbata 25, 12:00etatik
Asteazkena 1, 06:00etara

Autobusak Amarotzetik sartuko dira. Jaisteko geltokiak kondeko aldapa (Zumardi Handiaren sarreran) eta santa klara. Igotzeko lehen geltokia santa klara. Asteazkena 1, 06:00etatik 09:00etara amarotzetik zezen plazara sartuko dira eta santa klaratik atera. 09:00etatik aurrera ohiko ibilbidea.

renfe

## RENFE. GAUEKO TREN ZERBITZU BEREZIAK

**TOLOSA - DONOSTIA / IRUN**
Astelehena 27: 01:00, 03:00, 05:00.
Asteartea 28: 01:00, 02:00, 03:00, 03:50, 04:50, 05:00 eta 05:50.

**TOLOSA - BRINKOLA**
Astelehena 27 eta asteartea 28: 03:15 eta 05:10

**Eska ezazu Gu Jaia! txartela. Itzulerako bidaia egiteko balio dizu, gaueko 00:00etatik gaizek 10:00ak arte.**

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
ESCUELA POLITÉCNICA SUPERIOR

MONDRAGON UNIBERTSITATEA



INGENIARITZA GRADUETAKO
ATE IREKIAK

GOIERRIKO CAMPUSA

MARTXOAK 4
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

MAIATZAK 4
Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI
902 110 436
www.mondragon.edu/prest

Arranomendia, 2. ORDIZIA tel. 943 88 00 62 /
bulegoa@goierrieskola.org





BINAI
ODONTOLOGIA ZENTROA

Irun
Jose Eguino, 2 · 1 A
943 612 831

Tolosa
Arostegieta, 6 BIS · 1
943 672 999

www.clinicabinai.com

Zure hortzen osasuna
eskurik onenean



- Inplanteak
- Ortodontzia
- Hortzetako estetika
- Protesien laborategia
- PADI-Osakidetza

# EGURALDIA

### OSTIRALA

Eguraldi polita, udaberri ukituko eguralidarekin jarraituko dugu. Ñanbardura bat izango du, eguerdi-arratsaldeko lehen orduan haizeak ekialde ukitu bat izango du, apenas ekarriko du ondoriorik. Urte sasoi honetarako tenperatura nahiko altuak izango ditugu (18 gradu). Gauean hego-mendebaldeko haizea sartuko da. Oso eguraldi polita.



**IKER IBARLUZEA**
EGURALDI MUTILA

### LARUNBATA

Kalderero egunak ez dakar itxura txarrik. Eguerditik aurrera haizeak ipar-mendebaldera egingo du. Zeruan hodei gehiago ikusiko dira, ez dute euririk ekarriko hala ere. Eguerdian ipar mendebaldeko haizea sartuko da, tenperatura gradu erdia behera geratuko da. Aitzakiarik gabeko eguraldia.

### IGANDEA

Zertxobait okertuko zaigu eguraldia, ipar-mendebaldeko haizea ibiliko zaigu, ez du zakar joko, tarteka bolada biziren bat. Zeruan hodei gehiago ikusiko ditugu, euri txiki moduan botako du botatzen duena. Orokorrean garrantzi gabeko zaparradak izango dira.Tenperaturak behera egingo du nabarmen gainera (12-13 gradu).

### ASTELEHENA

Goizean oraindik orain hodei batzuk izango ditugu, euri hondarren bat izan dezakegu, nahiz eta ipar-mendebaldeko haizea ibili, orokorrean botatzen duena euri txiki edo xirimiri modura botako du. Eguerdirako ia erabat atertu egingo du. Arratsalde partean zerua geroz eta garbiago ikusiko dugu, joera garbia dator eta.

OSTIRALA 17 — IGANDEA 19
LARUNBATA 18 — ASTELEHENA 20

# INAUTERIETAKO EGURALDIA

Badirudi Ostegun Gizenerako, eguraldi polita izango dugula; ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da, eguzkiak ez du inolako trabarik izango. Goizean arratsalde-gauean baino garbiago agertuko zaigu zerua. Eguna amaitzerako euri konturik ez da espero, tenperatura epelekin 14-15 gradu.

Inauterien joerari dagokionez berriz, oraindik egun asko geratzen dira, aurreikuspenak egun batetik bestera alda daitezke baina momentuz oso itxura txarrik ez dute. Badirudi ostiral aldera kaxkarraldi handi samar bat ekarriko duela. Badirudi berriz antizikloia sartu eta eguraldi egonkorragoa ekarriko digula. Hala ere, oraindik egun asko geratzen dira eta egunez egun ikusi beharko da inauteriek zer ekartzen diguten.

# ASTEBURUKO FARMAZIAK

**OTSAILAK 17, OSTIRALA**
TOLOSA
**Egunekoa.** Bronte, C.
Korreo kalea, 20.
Telefonoa: 943 67 60 13.

**OTSAILAK 18, LARUNBATA**
TOLOSA
**Egunekoa.** Morant, R.
Zabalarreta lorategiak, 1.
Telefonoa: 943 67 38 49.

**OTSAILAK 19, IGANDEA**
TOLOSA
**Egunekoa.** Etxebeste, J. M.
Gernikako Arbolaren lorategiak, 3.
Telefonoa: 943 65 10 40.

**OTSAILAK 20, ASTELEHENA**
IBARRA
**Egunekoa.** Mujika, E.
Euskal Herria kalea, 3.
Telefonoa: 943 67 09 15.

**EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO FARMAZIA:**

TOLOSA • Morant, R.
Zabalarreta Lorategiak, 1.
Tel.: 943 67 38 49.

# INAUTERIETAKO FARMAZIAK

**OTSAILAK 23, OSTEGUNA**
TOLOSA
**Egunekoa.** Bronte, C. Korreo kalea, 20.
Telefonoa: 943 67 60 13.

**OTSAILAK 24, OSTIRALA**
IBARRA
**Egunekoa.** Mujika, E.
Euskal Herria kalea, 3.
Telefonoa: 943 67 09 15.

**OTSAILAK 25, LARUNBATA**
TOLOSA
**Egunekoa.** Santamaria, I.
Nafarroa etorbidea, 2.
Telefonoa: 943 65 46 10.

**OTSAILAK 26, IGANDEA**
IBARRA
**Egunekoa.** Mujika, E.
Euskal Herria kalea, 3.
Telefonoa: 943 67 09 15

**OTSAILAK 27, ASTELEHENA**
IBARRA
**Egunekoa.** Mujika, E.
Euskal Herria kalea, 3.
Telefonoa: 943 67 09 15.

**OTSAILAK 28, ASTEARTEA**
IBARRA
**Egunekoa.** Lejeune, L.
Euskal Herria kalea, 24.
Telefonoa: 943 67 32 74.




# Jarraitu Tolosako inauteriak ataria.eusen!

**Otsailak 23 OSTEGUN GIZENA**

**11:40**ean hasita
Ostegun Gizeneko txupinazoa **zuzenean**

tolosaldeko ataria 28 KANALA

**Otsailak 26, 27 eta 28an**

**11:00**etan hasita
**zuzeneko entzunezko bereziak** San Frantzisko ondotik

**EGUNERO**

- Argazki eta bideo galeriak
- Protagonisten elkarrizketak
- Argazki lehiaketa
- Eta askoz ere gehiago...

ALUSTIZA
margolariak

TOLOSA
606 595 308

# 1990

diecinueve
noventa
gastroteka

Berria, originala,
ezberdina...






Garagarza plaza, 5 | **ORDIZIA** | Tel.: 943 88 40 79

Euskal Herria plaza, 5 | **TOLOSA** | Tel.: 943 119 017